

5. JARDUERA: KONPOSTA

Jarduera honetan konposta egingo dugu, hurrek ikas dezaten zein den konpostaren zeregina, alde batetik birziklapenaren inguruan kontzientzia izan dezaten eta bestetik, zein garrantzitsua den konposta landareak elika daitezen.

Txokoa gelan jarri baino lehen, irakasleak konpostaren berri emango die asamblea baten bitartez, bertan konposta zer den, zertarako balio duen, zergatik den garrantzitsua, nola egiten den, eta abarren inguruko galderak egingo dira hurren interesa pizteko, eta horren inguruko beharrezko ikaskuntza izateko.

Gelan, konposta bertan botatzeko ontzi bat izango dute txoko batean, guztiok jakin dezaten bertan konposta dagoela. Txoko horretan marrazki batekin adierazita egongo da zer bota daitekeen bertan eta zer ez, hurrek jakin dezaten.

Konpostaren ontzia betetzen denean, hurrengo pausora pasako dira. Horretarako, patioan dagoen konpostadorara joango dira beraiek birziklatu duten konposta bertan botatzeko.

Azkenik konpostaren arduraduna konposta mugitzen duenean hau ikustera joango dira eta ikasleek galderak egiteko aukera izango dute.